

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko urria • 284. alea



IKER ALDAZABAL
**“Lanpostuak sortzeko
neurriak behar ditugu”**

Gaztañerre azoka 2013

Soraluzen

Azaroak 9, Azoka Eguna

09:00etan Azokaren irekiera txalaparta-adar hotsekin.

10:00etan Umeendako jolasak eta txorimalo-tailerra Kukumixorekin, Kiroldegiko frontoian.

11:00etan Txistularien kalejira.

11:30ean Herri-kirolak Gaztetxia eta Galtzagorrixekin, Plaza Barrixan.

Izena ematea: Gaztetxia, Arrano, Mendata edo Gaztelupen, urriaren 31a baino lehen.

Goizean zehar herriko baserritar eta artisauen azoka, bertsolariak, kale animazioa eta taloak karpan...

12:30ean Ekitaldia azokan: dantza saioa, bertsolariak, sari-banaketa eta omenaldia.

14:30ean Babajana eta jolasak, Gaztetxean.

Txartelak: Gaztetxia, Arrano, Mendata eta Gaztelupen, azaroaren 7a baino lehen

15:00etan Herri-babajana, karpan.

Txartelak: Iratxo, Arrano, Mendata eta Gaztelupen, urriaren 25etik aurrera.

ERROMERIAK

19:00etan Xero Xiette, Karpan.

00:00etan Fun & Go . Gaztetxean.

Azaroak 5, martitzena

"Errauskailuaren arriskuak osasunerako" hitzaldia, Iñigo Suberbiola medikuarekin

19:00etan, Plaza Zaharreko karpan.

Antolatzailea: Soraluze Zero Zabor

Azaroak 1, 2 eta 3

Zizare eta landare bidezko ur arazketa tailerra

Azaliatxo lastozko etxean.

Izena emateko deitu 943 251122 zenbakira

Antolatzailea: Azaliatxo

Azaroak 7, eguena

Talo ikastaroa

18:30etan, Ibai Eder Elkartean.

Izen ematea: 943 75 13 04

edo euskara@pilpilean.com

(Azaroaren 5a baino lehen)

Antolatzailea: Pil Pilean Euskaldunon Elkartea

Azaroak 8, barixakua

Erremonte jaialdia

Iluntzian, Kiroldegiko Frontoian

Antolatzailea: Soraluzeko Udala

Azaroak 11, astelehena,

GAZTAÑERRE EGUNA

Gaztaina-jana

19:00etan, Gaztetxean

Antolatzailea: Soraluzeko Gaztetxea

Gaztañerre afaria, euskararen suaren bueltan.

18:45ean Kantu-Jira Plaza Barritik

20:30ean Afaria Ibai Eder Elkartean

Izen ematea: 943751304 edo euskara@pilpilean.com

(Azaroaren 7a baino lehen)

Antolatzailea: Pil Pilean Euskaldunon Elkartea

Azaroak 14, eguena

Sukaldaritza jardunaldiak

19:00etan, herriko Elkarte Gastronomikoetan

Izena ematearena datozen egunetan argituko da.

Antolatzailea: Soraluzeko Udala



Jan, lan eta lo



Markel Arizaga Aitor Madrid

Aupa Aitor! Denboralditxo bat eta gero atariko berbetan ikusten zaitut berriz. Dena ondo? Osasuntsu zabilta? Eta lana? Azkenengo galdera hau azkenaldian nahiko konplikatu da. Hilabete askotxo goaz dagoeneko langabezian ilarak kilometro dexente neurtzen dituala. Bertan zutik egoteko zorigaiztua duten denei galdera honek ez die erantzun askorako emango naiz eta agintari batzuk berriz ere brote berdeak ikusteko plantak egiten hasi diren.

Nekatuta nago “gutxienez lana daukazu” esaldia entzuteaz

Zure kasuan, oker ez banabil behintzat, INEMA ez duzu barritik ikusi bihar izan momentuz, zorionak!

Ni ere momentuz egunak okupatuta pasatzeko lanpostu baten jabe izateko zortea daukat, eta hola jarraitu dadila.

Hala eta guztiz ere momenturako nekatuta nago “gutxienez lana daukazu” esaldia entzuteaz. Azkenengo urte guztian zehar ni eta nere lankideak leporaino gabiz jo eta su lanean. Egutero entzun behar izaten dugu krisia dela eta gure enpresa ez dagoela nahi bezain ondo, baina diru sarreraren inguruan egongo dira arazoak, egin beharrak soberan ditugulako, benetan soberan.

Beharbada langabeturen bat haserretu egingo da nerekin, lana edukita kexu naizelako, baina nere sektorean zorionez edo zoritarrez lan falta ez da hain nabarmena, eta enpresa baten lanean egonda gure gain sekulako presioa jasotzen egotea, bakoitzak gutxienez bi lanposturako ematen duen lan karga batekin, uste dut “gutxienez lana daukazu” ez dela nahikoa.

Batez ere gauzak ondo egin ezker lehena aipatutako ilara luze hori murrizteko aukera izanda.

Epa Markel! Ba osasunez ondo nabil egia esan eta lanaren beharrez ez nago momentuz. Makina batek hau ezin dute esan. Eta ondo ari zara nekatuta zaudela “gutxienez lana daukazu” entzuteaz. Neu be kokoteraino nago eta. Lehen, lan baldintzak nere inguruan etxafuegoak botatzeko modukoak ez baziren ere, egun ditxosozko murrizketekin zer kontatuko dizut? Maldan behera goaz bizkor-bizkor.

Beharrez gero eta gehiago eskatzen da soldata bera irabaziz. Eta gainera zortea daukazula entzun beharra, marka da gero. Nagusi askori ederki etorri zaie makalaldi ekonomikoa beharginei gehiago sakatzeko. Nora goaz baina? Konpetitiboak izango al gara bide horretatik? Bai zera. Pikutara, horra goaz. Barka hain ezkorra izateagatik baina sutan jartzen naiz. Aberatsak gero eta aberatsagoak dira eta ondorioz soldata-

“Aberastasuna banatu ezean are eta okerrago jarriko dira gauzak”

txoa dugunok gero eta txiroagoak. Lana eta aberastasuna banatu beharrez nahiago dute gutxi batzuen esku lagatzea. Bitartean jauntxoek jarritako agintari titereek beraien musika gura duten bezala dantzaten dute. Amorragarria.

Arestian esan bezala aberastasuna banatu ezean are eta okerrago jarriko dira gauzak. Gauzak egiteko modua aldatzeko arrazoiak soberan ditugu. Ez badu sistemak funtzionatzen alda dezagun. Ubuntu filosofia erabil dezagun. Elkarlana eta elkartasuna bultzatu ditzagun.

Gutunak

**Pil-pilean
Euskara Elkarte****Irriz irri lortua!**

Kukumixo, Dantza Taldia, Bertso Eskola, Musika Eskola, Udala, Gaztetxia, Xero Xiette, Eskolako irakasle eta umiak, Institutuko gaztiak, Galtzagorrixak, txistulari, sukaldari, txalapartari, soinu teknikari, irrirtzilar, dantzari, urpekari, trikitilari, tabernari, dendari, arraunlari, bertsolari eta bertsozale, kantuzale eta kantugile, talogile, pastelgile, adar jotzaile, linterneru, elektrizista, Ibai Eder, Arriogain, Allegro, Mahastia, Lagun Maiteak eta Arrano.

Plaentxiako euskaltzaleen irrifarrez eta borondatez lortu dogu Topa Eguna izan zana izatia.

Topa Plaentxia eta biba zuek!!

Domentx Uzin**Errauskailuari buruzko hitzaldira gonbidatzen zaituztegu**

Kaixo Iker, pozten nau gai hauen inguruan daukazu interesa eta ardua elkarbanatzen ditugula ikusteak. Ulertzen dut gainera, iritzi ezberdinak izango ditugula gai batzuetan. Baina hala ere hitz egiten eta irtenbide egokienak hobesten jarraitu behar dugu. Errauskailuak jaurtitzeko duen (furano eta dioxinak besteak beste) kutsadurak minbizi izateko arriskua haunditzen duela (beste gaixotasunen artean) ikertuta eta frogatuta dago. Hala diote Europa eta EEBBko hainbat unibertsitatetako ikerketek, MOEk (Munduko Osasun Erakundea) bezala. Hau, herritarrek jakin beharra dutela deritzot. Horretarako, pentsatu dugu SZZetik, gaian aditua den mediku bat ekartzea hitzaldi bat ematera, azaldu dezan ze eragin duen errauskailuak osasunarengan... "Burua ondo duenak bere etxe ondoan errauskailurik ez du nahi eta bihotz ona duenak besteen etxe ondoan ezta ere". Bestetik zoriondu nahi dut umeen mendi taldea, apurka ingurugiroaren kontzientzia transmititzen ari delako hurrengo belaunaldiari. Segi horrela!!

**Soraluzeko
Gazteria****Gaztetxeko barra zabalduko da**

Soraluzeko Gazteriak orain arte ekintza puntualetan bakarrik zabaldu dugu barra. Orain berriz, egunerokotasunean zabalteko asmoa daukagu, gaztetxeari bizitasuna eman, egunerokotasunean gazteontzat elkargune bihurtu, antolatzen diren ekintzak herritarrei zabaldu eta gaztetxearen berri izateko...

Irekiera urriaren 29an izango da eta gutun honen bidez herritarrenak gonbidatu nahi zaituztegu bertara. Azaroaren 2an berriz, irekiera jaialdia egongo da denon gozagarri!

Barra martxan jartzeak ez du esan nahi horretara mugatuko garenik. Aurrerantzean ere kultur eskaintza eginaz, hitzaldi interesgarriak antolatuz eta orohar, bizi aukerak landuz lanean jarraitzeko asmoa daukagu.

Bide horretan, Gaztetxeak Gaztañerretarako antolaturiko ekintzetan parte hartzeko deia luzatu nahi dizue Soraluzeko gazteei, herri kiroletan parte hartu eta elkar eza gutuz edota babajan ondorengo jolasetan elkarrekin barre eginaz! Gabian berriz, Fan & Go-ren erromerian dantzan ikusi nahi zaituztegu!

**Soraluzeko
EAJ/PNV
udal taldea****Soraluzen, euskeraren mailak gainbehera**

Datuak gordinak eta tematiak izaten dira zorionerako eta zoritxarrerako eta Soraluzen euskarari dagokionak benetan kezagarriak dira. EUSTATen arabera azken urteetan beherantz egin du euskara mailak herritarren artean. Urtetik urtera, D ereduan izen ematen duten haurren kopurua gorantz doa, baita euskaraz duten ezagutza ere baina erabileraren zoritxarrez gainbeheran. Kalean entzutea besterik ez dago zer hizkuntzatan mintzatzen diren eta zoritxarrez askotan ez da euskara izaten. Udalaren aldetik, urteetan euskara sustatu eta bultzatzeko planak ipini dira martxan, bai administrazio barrura begira baita herritarren erabilerari begira ere. Baina datuak aztertuz badirudi ez dela nahikoa. Zertan huts egiten dugu? Hausnarketarako gaia dela uste dugu. Euskaldun eta euskara maitatzen dugun guztiok, komunean lan egin beharko dugu datu hauei buelta emateko. Zeren eta Artzek zioen bezala "hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik" Beraz badakigu!!!

Bittartetik

**Ura berrerabiltzen**

Ura bultzeko beharrezkoa dugu, ur gabe ez dago bizitzarik eta urria da. Gero eta pertsona gehiago bizi gara (pertsonako 30.000 litro ur inguru erabiltzen ditugu urtean) eta industria goraka doa etengabe; honek ur kontsumoa gero eta handiagoa izatea suposatzen du eta hondakin gero eta gehiago isurtzera behartzen gaitu, ingurugiroarekiko dakarren ondorio latzekin. Herritarrok uraren kudeaketan ezer gutxi egiten dugu, txorroa zabaldu eta fakturak ordaintzeaz aparte. Ez gara pentsatzen ipintzen nondik datorren eta zer pasatzen den erabili dugun urarekin; ez dugunez ikusten ez ikusiarena egiten jarraitzen dugu guri enbarazu egiten ez digun birtartean (ur gabezia, eltxoak). Ez dugu gure ura kudeatzen, ura eta hondakin likidoak enpresa batek kudeatzen ditu, beharrezkoa den lehengai baten kontura dirua eginaz. Ura arazteko eraikuntza gastua handia da eta energia asko xahutu beharra dago. Ordua da uraren gaiari heltzeko, dugun jakinduria eta teknologia guztiarekin uraren kudeaketa on bat eginez: ur hornikuntzak aztertu; baso, nekazal lurren kudeaketa hobetu ur gehiago infiltratzeko eta materia organikorik ez galtzeko; ur gutxiago erabili eta kutsatu; eraikuntza, mantenu eta energia gastu gutxiago arazteko sistemak erabili eta berrerabili. Gaur egungo ziklo linealean energia ugari erabili eta hain preziatua diren lehengaiak galtzen ditugu; ziklo itxian aldiz, dena berriro sistemara itzuliko da, hondakin deitzen dugun hori lehengai bihurtuz. Dena gure esku dago: guregan sinestea, pentsatzea, eztabaidatzea. Ekintzara pasatzea da dugun bakarra.

BIZIKALE ELKARTEA

“Planak ilusioa piztu du elkarteak”

Bizikalekoek eta udalak herriko merkataritza biziberritzeko estrategiak zehazten jardun dute azken hilabeteotan. Amaitu berri dute lana.

Soraluzetarren erosketa ohiturak aztertuta, eta herrian dagoen eskaintzaren analisia egin dute. Etorkizuneko ildoak zehaztu dituzte.

Zein izan da plana garatzeko arrazoi nagusia?

2008an sortu genuen Bizikale 30 bazkide ingururekin. Egoerak okerrera egiten zuela ikusita, udalarekin harremanetan jarri, eta elkarlanean, herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko lanean hastea erabaki genuen.

Zein ondorio nagusi atera duzue?

Gure artean eta udalarekin elkarlan handiagoa behar dugula. Horretarako Bizikale indartu beharra daukagu; ahalik eta bazkide gehien batu eta elkartearen lana profesionalizatu. Bizikale herriko erreferentzia nagusienetakoa izatea lortu behar dugu.

Zela lortu liteke hori?

Orain arte merkataritza elkarteak ahula izan da, ez dugulako norabide berdinean lan egiteko gaitasunik izan. Ustez kompetentzia arazoak dira oztopo, baina konturatu behar dugu gure kompetentzia inguruko herrietako merkatalgune handiak direla. Udalarekin batera, herria soraluzetarron merkatalgune handi bihurtzea lortu behar dugu, eta hori lortzeko antolatu beharra dugu.

“Merkatalgune handiak dira kompetentzia”.

Eskaintza komertziala hobetu beharra aipatu duzue.

Bai. Herriarrek barietatea eskatzen dute, bai komertziotan eta bai produktutan. Balio erantsi bat izatea. Ekologikoa edo gertukoa izatea, adibidez. Herriko saltokietan produktu onak ditugu eta horiek balioan jartzen ikasi behar dugu.

“Produktu onak ditugu. Saltzen ikasi behar dugu”

Zela egiten da hori?

Komunikazioa ondo landuz, esaterako. Daukaguna saltzen ikasi behar dugu. Beroari esplikatu egin behar zaio, zer den, nondik datorren... arreta pertsonala eskaini behar diogu. Bestetik, orduetgia, astean zehar izango dugun eskaintza... garbi adierazi beharra daukagu.

“Bihurtu dezagun herria gure merkatalgune”



Ainara Muga (E-team aholkularitza), Mari Mar Deza eta Sara Goenaga (Bizikaleko kideak).

Udalak eta herritarrek zertan lagundu dezakete?

Udalarekin talde bat osatu behar dugu, norabide berdinean doana. Herriarrek, bere aldetik, jabetu behar du herrian erosteak zenbateko garrantzia daukan, herrian ez erosteak herriaren arima hiltzea dakarrelako. Beharrak helarazteko eskatuko diegu, sujerentziak, kexak... elkarlanaren parte izan daitezten.

Azaroan azoka antolatzeko asmoa duzue.

Bai. Bizikale osatzen dugunon produktuak plazara atera nahi ditugu. Aseguru etxeek, aholkularitzek euren eskaintzaren berri emango dute, ile apaindegi eta estetika zentroek euren lanak erakutsi... erretegi bat ere jarriko dugu; herriko dendetako produktuekin egindako pintxoekin eta ostalarien edariekin.

Zer esango zeniekete oraindik Bizikalen ez daudenei?

Euren parte hartzea ere beharrezkoa dela. Denon artean lortu dezakegun indarrak onurak besterik ez dizkigu ekarriko. Azken egunetan kide berriak batu dira elkartera. Bazkide izateko, hilean 10 euro eta gogoia besterik ez da behar.

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

Txoko kafetegia

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22. behea, Soraluze, Tel. 943 75 17 89

Bizikaleko merkatari eta ostalariek azoka bat antolatu dute azarorako

Herritarrek euren produktuak ezagutu ditzaten Bizikale elkarte osatzen duten merkatari eta ostalariek azoka bat



Herritarrak kooperatiban erosten.

gingo dute azaroaren erdialdean. Aseguru etxeek eta aholkularitzek euren eskaintzaren berri emateko aukera izango dute, ile apaindegi eta estetika zentroek euren lanak erakusteko eta dendariak produktuak kaleratzeko. Errege bat ere jarriko dutela iragarri dute; herriko produktuekin egindako pintxoak eta ostalarien edariak dastagai jartzeko. Ekimen hau, orain gutxi aurkeztu duten merkataritz biziberritzeko planaren baitan kokatzen da eta adierazi dutenez, epe laburrean; "web orria, pentsiodunendako bonolaguntzen kanpaina eta gabonetako zaldiko maldikoa" antolatzeko asmoa dute.

Motzean

Gaztetxean barra eguneroko zabalik

Urriaren 29tik aurrera gaztetxeak eguneroko izango du barra zabalik, eguerdiko 12:00etatik gauerdiko 24:00ra bitartean. Zerbitzu berri honekin gaztetxeari "bizitasuna" eman nahi diote eta "egunerokotasunean gazteen elkargune" bihurtu. Azaroaren 2rako irekiera jaia antolatu dute eta bertara gonbidatu nahi dituzte bereziki herriko gazteak.



Garraio publikoa hobetzeko ekarpenak


Astelehenean Aldundiak deituta bilera egin zen, sorluzetarrek garraio publikoaren inguruan dituzten ekarpenak egiteko. Hogeita hamar lagun inguruk hartu zuten parte eta besteak beste Eibar eta Elgoibarrera autobus zerbitzua ugaritzea eta bertatik, Bilbora, Loiura, Mendarora, Debara... joateko lotura hobeak ezartzea proposatu zuten. Bileran adostutako eskariekin martxorako proposamena garatuko du Aldundiak eta herritarrek azken ekarpenak egiteko aukera izango dute orduan.



Herrirari babesa adierazteko mobilizazioak



Urriaren 2an Herrirako Herri Bilgunea batu zen Plaza Berrian. Egun bi lehenago Guardia Zibilak Herriraren aurkako operazioa burutu zuen. Bestalde, Estrasburgoko epaiak Lurdes Txurrukari eragingo dion arren, "espetxealdiaren amaiera data jakinik barik dituzten hamar presoeren artean dagoenez", ez dakite zela. Gehitu esaldi hau: Lurdesi parot doktrina ezarri zioten eta 19 urte daramatza preso.



Ura arazteko sistema nola egin ikasteko tailerra

Azaroaren 1, 2 eta 3rako Txurruka auzoko Azaliatxo lastozko etxeak bertako ura zizare biofiltro eta ur landare putzu bitartez arazteko sistema nola egin erakusteko hiru eguneko tailerra antolatu du. Izen-ematea azaliatxo@gmail.com helbidean egin daiteke edota 943 25 11 22 telefonora deituta.

Taberna eta elkarteek babesa adierazi diote Arranoari

Herriko tabernen auzia dela eta, herriko hainbat taberna eta elkarte gastronomikoetako ordezkariak Arranoari eta gainontzeko auzipetuei babesa helarazteko agerraldia egin zuten. Aipatzekoa da bestalde, herriko tabernetako arduradunek ez dutela epaiketaren presentean egon beharrik izango eta bezar, Jose Frantzisko Aizpuruk *Atxitok* ez du Madrilera joaten ibili beharko.



Haragi goxoenak lehiatzen

Itxaropena Elkarteak hamasei jubilatuk hartu zuten parte urtero antolatzen duten haragi gisatu txapelketan. Teo Ruiz eta Jose Luis Perezek jaso zuten lehen saria eta Arantxa eta Natalia San Josek bigarrena. Ostean prestatutako bazkariak 100 lagun batu zituen.



Gurasoen parte hartzea indartu beharra

Gurasoen parte hartze "urria" izan zen Hezkuntza gogoetagai hartuta Alkarrekin urriko lehenengo foroan aipatu zen gaitetako bat. Hezkuntza komunitatea, formazioa, errendimendu akademikoa, eta hezkuntzari eskainitako azpiegiturak izan zituzten berbetagai. Nabarmentzekoa da foroan parte hartu zuen herritarren kopuru handia (berrogeitamarren bat), eskolako irakasle eta hezitzaileena (Ludoteka, Kukumixo...) batez ere. Gurasoen presentzia berriz oso txikia izan zen.

Euskarari buruzko "herri gogoeta" azaroan

Soraluzeko Udalak EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) berritzeko apro-

betxatuko ditu azaroan Alkarrekin barruan antolatuko diren herritarren foroak. Estandarretatik urrundu, eta "herriko errealitate hurbilago egongo den plan estrategikoa" egitea da udalaren nahia; eta, horretarako, herritarren eta herriko eragileen parte-hartzea bultzatuko du. Lan-saio irekiak azaroaren 13 eta 27an egingo dira, eta lan hori bideratzeko, Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izango da.

Eguneko zentroa Estaziñon.

Iraileko udalbatzarrak aho batez onartu zuen udalak Estaziño kalean duen 150 m² inguruko lokala Aldundiari lagatzea. Lagapena 25 urtekoa izango da eta Aldundia-
ren ardura izango da zentrua kudeatzea.

"Soraluze Beldur Barik" lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik

"Soraluze Beldur Barik" lehiaketa 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta aurkeztutako lanek, ezinbestean, "beldur barik" bizitzeko jarraera erakutsi behar dute. Indarkeria sexista gaitzesten duen adierazpen artistiko oro onartuko dituzte, betiere, bideo formatuan aurkeztuta. Proposamen onenek 170 euroko saria jasoko dute eta lanak azaroaren 15a baino lehen bidali behar dira berdintasuna@soraluze.net helbidera.

Azaroaren 25eko egitaraua

Azaroaren 14 eta 21ean "¡Ay, Amor Amor! No me quieras tanto y quíereme mejor" maitasun erromantikoaren inguruko tailerra eskainiko du Myriam Herbónnek. Hilaren 19an, "Beldur Barik" lehiaketako lanak sarituko dituzte eta 22an, Hika konpainiak "Hitzak" antzezlanaren taularatuko du. Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren aurkako agerraldia egingo dute eta urtarrilean, "Verdades y mentiras sobre la Violencia

contra las Mujeres" erakusketa ikusgai jarriko da. Aipatu ekitaldiak Emakumeen Topaguneak eta udaleko parekidetasun sailak elkarlanean antolatuak izan dira



"Beldur barik lehiaketako kartel iragarlea"



Errauskailuaren arriskuak



Azaroaren 5ean
Plaza Zaharreko karpan,
arratsaldeko 7etan

Iñigo Suberbiola medikuak emago duen hitzaldian datu interesgarriekin argituko digu errauskailuak osasunean sortzen dituen arriskuei buruz. Denok gonbidatuta zaudete.

Iñigo Suberbiola (Lasarte-Oria 1975), Medikuntza Lizentziatua EHU-n (familiako medikuntza espezializatua). 2003 Urte inguruan Gipuzkoan erraus-tegia egin behar zela jakin zutenean gaiaren inguruko informazio zientifikoa aztertzen hasi zen mediku taldeko kidea da. Argitaratu zuten adierazpenak 500etik gora osasun langile-
ren (mediku, erizain, osasun laguntzaile...) atxikimendua jaso zuen.

Osasun Sailaren dokumentua
Hasiera batean Osasun Sailak ez zuen deklarazio publikorik egin. Guk Arartekoari txostena aurkeztu ostean aurkeztu zuen dokumentu bat. Bertan, onartzen zuen errauskailu tradizio-nalek minbizia areagotzen zutela baina errauskailu modernoek kasuan, hori frogatzen duen txostenik ez dagoela zioen. Hamar urte geroago, argitaratutako azken ikerketek diote erraus-tegi moderno hoietatik gertu bizitzeak ere minbizi gehiago agertzea eragiten duela. Nik dakidala Osasun Sailak ez du deklarazio gehiago egin gai honen inguruan.

“Munduko osasun erakundeak dio errauskailuak direla toxina isurtzaile nagusiak”

Ikerketak

Ikerketak gehienetan agertzen dena minbizi mota batzuen areagotzea da.

Guretzat hau da garrantzitsua. Beste ikerketa batzuek erraus-tegien inguruan bizi den biztanlegoan jaiotzetiko malformazioak, garapen arazoak eta arazo hormonalak areagotzen direla erakusten dute.

Dosi akumulatiboak

Gizakiontzat toxikoak diren substantzia batzuk gorputzak oso errez kanporatu edo metabolizatzen ditu. Demagun, alkohola. Beste gai batzuk, adibidez dioxinak eta furanoak, bere konposaketagatik gorputzean pilatzen doaz.

Munduko osasun erakundeak. 1999 eta 2003ko txostenetan dio errauskailuak dioxina eta furano isurtzaile nagusienak direla.

Bide hobeak

Gizarte kontaminatu batean bizi gara eta errauskailuak ez direla kontaminazio eta kalte iturri bakarrak. Beste gai batzuei buruz ikerketak irakurtzen hasiko bagina... Hala ere, mediku bezala, uste dut zaborrak tratatzeko beste bide hobeak baldin badaude hoiek jorratu behar direla.


Soraluze



ZERO ZABOR



topa eguna



Iker Aldazabal Basauri

“Lanpostuak sortzeko neurriak behar ditugu”

Iker Aldazabal Basauri (Soraluze, 1977). Zuzenbidean lizentziatua da eta ingurugiro masterra du. EAJko zinegotzia izan zen 2003-2007 legegintzaldian eta Gizpuzkoako Batzar Nagusietako Batzarkide 2007-2011 bitartean. 2007tik Soraluzeko EAJren udal taldearen bozeramailea da.

Euskal politikagintza ziklo berri batean sartuta dago. Antzeman duzu hori?

Bai, adibidez Kontzejupean dagoeneko ez dago bizkartzainik eta hauteskundeetan alderdi politiko guztiak aurkezteko aukera izan dute. Ezohiko egoera batetik ohikotasunera pasatu gara. Egunerokotasunaren gurpilzoroak errealitate berriaz jabetzen lagatzen ez digun arren, baloratu beharreko aldaketa da.

Elkarbizitza bultzatzeko ekimenak jarri dira martxan hainbat udalerritan: Irun, Orereta, Elgoibar... Soraluzen ere behar dugu horrelako zeozer?

Zoritzarrez Soraluzen ere urtetako gatazkak sufrimendu ugari eragin du. Elkarren arteko bizikidetzaren sendotzeko eta sustatzeko neurriak hartu beharko lirateke hemen ere, bai.

Zer balorazio Bilduren udal gobernuaren bi urteotako jardunaz?

Eustat-en arabera Soraluzeko langabezi tasa % 19ra heldu da eta hauetatik % 75ak ez dauka kualifikazio akademikorik, pobrezia maila oso altua da, laguntza sozial kopurua bailarako altuenetakoa, errenta maila bailarako bajeuna, ikasketa maila beherantz, 850 pertsona baino gehiago 65 urtetik gorakoak, etorkin kopurua oso altua da, industria eta merkataritza gainbehera, euskera maila beherantz... Erreflexio sakon bat behar dugu.

Kalean herritarrek esaten digute herria atzerantz doala, eta zerbait egiteko. Bilduk kultur ekitaldien antolakuntzan lan txukuna egiten du, baina ez dago beste lehentasun garrantzitsuagoagorik herrian?



Zein dira lehentasun horiek?

Langabeziari aurre egitea da lehentasuna. Enplegu plan bat zehaztu behar da baima mailakoa, instituzioak, enpresak eta merkataria elkarlanean. Jendearendako laguntzarik onena lanpostu bat izatea da. Hezkuntzan maila akademikoa berreskuratzeko lanketa, inmigrazio plana... Azpiegitura aldetik, eguneko zentrua eta kiroldegiko gaina egokitu behar lirateke.

Gai asko Alkarrekin prozesuan landu dituzue.

Lehenengomomentutik prest egon ginen prozesuan parte hartzeko eta buru belari gaude inplikaturik. Herritarren artean, herri partaide-tzaren kultura falta nabaria da, eta lan asko dago egiteko. Hau horrela izanda, uste dut, Bildukudal kudeaketan duen gaitasun gabezia estaltzeko erabiltzen duela prozesu hau. Bien bitartean bi urte luze igaro dira, iniziatibarik gabe.

“Erreflexio sakon bat egin behar genuke Soraluzeren egoeraz”

“Lehentasuna langabeziari aurre egitea da”

“Hainbeste urtetako kudeaketaren ostean logikoa da EAJk desgastea nabaritzea”

Behin egon zineten gobernu berean. Ikusten duzu etorkizunean hori errepikatzen aukerarik?

Alderdi bakoitza hauteskunde programa batekin aurkezten gara, eta bultzatu beharreko proiektuekin ados bagaude zergaitik ez ditugu elkarlanean gauzatuko? Herritarrek elkarlana galdatzen digute eta gu gertu gaude bai Bildurekin eta baita PSE-EE-rekin jarduteko. Ihazko aurrekontuak aho batez onartu genituen. Aspaldi ez zen gertatu.

Soraluzeko EAJk bi legegintzaldi daramatza oposizioan. Zein irakurketa egiten duzu horretaz?

Udal kudeaketan hainbeste urte egin ostean logikoa da desgastea nabaritzea. Hala ere, azken hauteskundeetako emaitzei begiratuta, eta kontuan hartuta Bildu koalizioa dela, EAJ da herriko lehenengo alderdi politikoa. Ihazko aurrekontuak aho batez onartu genituen. Aspaldi ez zen gertatu.

ARLOZ ARLO**5. edukiontzia emaitzen balorazioa egin beharko da laster.**

Lehenik eta behin soraluzetarrek gai honekiko azaldu duten jarrera txalotu eta zoriondu nahiko nuke. Herriko familien %60ak eman du izena 5. edukiontzian. Hortik aurrera, ezinbestekoa ikusten dut herritarren kontzientziak. Guk bide hori bultzatzeko %30ko hobariak planteatu ditugu 2014ko zaborraren tasari dagokionean.

Langabezia %19raino heldu da herrian.

Eta % 75ak ez dauka nahikoa prestakuntza. Datua ikaragarria da. Pertsona horiei formazio minimo bat eman beharko zaie lan munduan txertatzeko. Guk enplegua sortzeko proposamen bat egin dugu; lanpostu berriak sortzen dituzten enpresari eta merkatariei % 50ko hobariak ezartzea. Zeharkako neurri moduan, 2014 urteko zerga eta tasak izoztea proposatu dugu, herritarrek sufritzen duten egoera larria arintzeko.

Merkataritza biziberritzeko plana aurkeztu berri dute.

Lehenik eta behin beraien elkarrekin sendotu behar dute, oraintsu arte herriko merkatarien %38a bakarrik dago Bizikalen eta. Sendotu ostean, etorkizuneko ildoak zehaztu eta udalarekin elkarlanean merkataritza sustatu behar da. Bestalde, herritarrok kontziente izan behar dugu herrian erosteak duen garrantzia, bestela jai dugu.

Euskara biziberritzeko plan berriaz berba egingo da azaroan.

Kezka handiz bizi dugu! Azken urte hauetan euskararen erabileraren gainbehera nabarmena da arlo guztietan. Planak eta ekintzak burutzen dira baina badirudi ez dela nahikoa. Zertan hutsegiten dugu?

**BERBA BATEN**

LOMCE: Hilda jaio den legea.

Herrira: Estatuak bake prozesuari ipinitako beste oztopo bat.

“Geure esku dago” ekimena: Ekimen interesgarria, herritarrek gure herriaren erabakitzeko eskubidearen alde martxan ipini dutena.

Epaiketa politikoak: Iraganekoak behar lukete.

Memoria: Etorkizunekoek iraganaz jakin behar dute.

Erosketak non? Herrian eta herritik kanpo.

Azken ekitaldi politikoa. 2013ko Alderdi Eguna.

Aldarrikapen politiko bat. Gora euskadi askatuta!

Liburu bat. El arte de la guerra (Sun Tzu).

Pertsona bat. Edozein pertsona fin eta langilea.

Politikaz eta politikariez nazkatuta dagoenari? Politika eta politikariak gizartearen islada dira, ez hobe ez txarragoa.

Kultura eta kirola

Kulturgintzako eragile asko dago herrian baina koordinazioan eta azpiegituretan badago zer hobetua.

Kirol azpiegiturak hobetu dira baina kirol berriak egiteko aukera ez da horrenbestekoa.

Kultura eta kirol arloak izan ziren gogoe-tagai uztailen antolatu ziren foroetan. Herriko hainbat eragileren ordezkariak parte hartu zuten: musika eskola, txistulari taldea, abesbatza, Pil-pilean euskara elkarte, Soraluzeko gazteria, dantza taldea, tanborrada, auzoetako jaietakoak, Kontrargi, futbol taldea, mendi taldea...

Kultura arloari dagokionez, herri ekimenaren ugaritasuna eta orokorrean dagoen koordinaziorako beharra nabarmendu ziren. Kirol arloan berriz, kiroldegiko eskaintzak izan duen hobekuntza eta emakumeen parte hartzea bultzatzeko beharra azpimarratu zituzten.



RK Zulo musika jaialdiko irudia.

► DIAGNOSTIKOA (Kultura)

KULTURGILE ASKO

Herrian kulturgintzan diharduen talde asko dago, eta alde horretatik herri ekintzailea, bizia eta parte hartzailea da.

ELKARLANERAKO JOERA

Kulturgintzan diharduten taldeen euren eta udalaren arteko koordinazioak kezka iturri izaten jarraitzen badu ere, elkarlanerako gero eta joera handiagoa somatzen da.

ESKAINZA DESOREKATUA

Kultur ekimenen kopurua handia da baina ekimen asko urteko sasoi berdinetan kontzentratzen dira. Eskaintzaren promoziorako baliabide gutxi dago. Euskarazko sorkuntzak presentzia nabarmena du urtean zehar.

AZPIEGITURA GABEZIA

Antzokiaren erabilerak hutsune handia bete badu ere, hainbat taldek euren jarduna garatzeko espazioak falta dituzte: dantza taldeak esaterako. Merkatu plazan taldeen jardunerako aurreikusten den lokala gune garrantzitsua bihurtu liteke.

► DIAGNOSTIKOA (Kirola)

AZPIEGITURA BERRIAK

Kiroldegia da azpiegitura handiena. Hainbat kirol mota praktikatuta liteke bertan eta 800 bazkide baino gehiago ditu gaur egun. Futbol zelaia, bidegorria, frontoiak, bolatokia... ere badira.

KIROL ESKAINZA UGARIA

Kiroldegian arrakasta gehiena duten ikastaroak igeriketa eta spinninga dira. Bestelako kirol eskaintza ere ugaria da: futbola, mendia, pelota... Atletismoa edo eskalada moduko kirolak praktikatuzko eskaintzarik ez dago.

KIROL ELKARTE GUTXI

Lau kirol elkarte daude egituratuta: futbol taldea, pelota elkarte, mendi taldea eta judo taldea. Gainerakoak ekimen puntualak antolatzen dituzten zaletu taldeak dira.

Lehenetsitako proiektuak eta ekintza posibleak

KULTURA

▶ HERRI-KULTURA BALIOAN JARRI

Argazki zaharren erakusketa, toponimia batu, herriaren historia ezagutarazteko ibilbideak, armagintzaren historia aztertu, ibaiarekiko harremana berreskuratu, eguzki erlojua berreskuratu...

▶ ESKAINTZA ANTOLATU

Herri-antzerkia landu, zinea kalean, argazkilaritza ikastaroak, zinekluba osatu, irakurle taldeak osatu, musika ikuskizunak ermitetan...

▶ KULTURARTEKOTASUNA

Herriko jaietan etorkinekin ekimenak antolatu, etorkinen ohiturak ezagutarazteko aste tematikoak...

▶ BISIBILIZAZIOA

Interneten lekua eman (agenda, sare sozialak, emailak...), mugikor bidez informazioa zabaltu, informazio taula bereziak kalean, taula elektronikoa...

▶ KOORDINAZIOA LANDU

Taldeen erregistroa sortu, kultura mahaia antolatu, gainerako herriekiko sarea osatu...

▶ AZPIEGITURAK

Antzokia hornitu, liburutegian ikasteko lekua egokitu, arte eszenikorako espazioak egokitu, Merkatu Plazako elkartegia hornitu...

KIROLA

▶ EMAKUMEAK ETA 12-16 URTEKO GAZTEAK

Emakumeen kirolen berri eman, emakumeen kirol eguna, kirol praktika mixtoak bultzatu, bestelako kirolen egunak, pala eskola-kirolean, kirol elkarte zabal bat, olimpiadak kirol mota ugariarekin...

▶ KIROL INSTALAKUNTZAK

Kirol azpiegiturak hobetu dira eta kirol berriak egiteko aukera indartu behar da.

▶ PARTAIDETZA SUSTATU

Kirol ekimenen promozio hobea, kolektibo konkretuak gonbidatu, koadrilen arteko ginkana, kirol egunak, kriket eta baseball ikasi etorkinengandik, Marraskilo Tour txikia...

Hurrengo foroak

Hezkuntza (II) Urriak 30

Euskara Azaroak 13 eta 30

Jose Luque Martinez



Bizirik sentitzeko

Artikulu hau idaztea proposatu a zidaten orain dela egun batzuk, Soraluzen ariketa fisikoa eta kirola zela indartu daitekeenaren inguruan jarduteko. Beharbada lehenago izan dudan inplikazioagatik eta jendearen gehiengoak kirolen praktikatuz dezan ahalegintzeko sentitzen dudan gogoarengatik eskatuko zidaten. Ordenagailuaren aurrean jarri eta... burura datozkit edozein ekimenen antolaketan parte hartu dudanean hasi aurretiko momentu horiek; tentsioa, nerbioa, ilusioa, eskerrona... eta hori dena ezergatik? Ezzzzz. Arrazoi askorengatik egiten da ariketa fisikoa, baina nik ikasi nuen egitea bezain garrantzitsua dela ohitura osasungarriek zabaltzea, eta horretan dihardut. Zaila da uzta jasotzea aurrez lurra prestatu eta eriten ez bada, eta nik benetan uste dut Soraluzen lanaren zati bat egina dagoela dagoeneko. Dena dela, norbait baldin badago pentsatzen duena ditugun gabeziak kanpotik etorriko den norbaiten konponduko dizkigula, jarraitu dezala zain. Gauza bat bakarrik behar dugu, BIZIRIK gaudela sentitzea, bakoitzak ahal duen neurriko ekarpena eginez, sortzen jarraitu, eta herria etengabeko jardunean mantentzeko. Lerro hauek aprobeztatu nahi nituzke, kirol ariketa fisikoak sortu eta garatzeko gogo altruista duen edozein pertsonarengana zuzendu eta elkartzeko dei egiteko. Ez dugu ezer galduko eta saria handia izango da, eta oso otsegina. Egingo duguna herritarrok dugun interesaren neurrikoa izango da, eta ez dut pentsatu nahi, jendeak nahiago duenik besoak gurutzatu gelditzea bere alea ipini barik..

Urriaren 29tik aurrera Gaztetzeko barra zabalik izango da egunero. Urte asko dira azkenenegoz Gaztetzeko barra egunero zabaldu zela eta horretxan inguruan galdetu diegu herritarrei.

Zer iruditzen zaizu Gaztetzeko barra zabalik izatea?



Oihher Aranzeta

Ondo. Akordatzen naiz lehenago zozketa egiten zela barra zeinek hartuko zuen erabakitzeko. Pozten naiz berriz ere jendea gertu badago. Pentsatzen dut barra zabaldukoan jende gehiago hurreratuko dela.



Lorea Calles

Oso ondo. Tabernak ixtea baino zabal-tzea hobea. Barra zabalik zegoenean edade guztietako jendea sartzen zen. Barra zabalik izateak giroa sortuko du.



Amaia Agirre

Barra zabalteak jende gehiago erakarriko du. Gu gaztetzotan etxekolanak egitera joaten ginen. Badago ezberdintasun bat gainerako tabernekin, Gaztetzekoan egoteko ez dago kontsumitu beharrik. Egia da barra zabalik badago errazago sartuko gara.



Bittor Ariznabarreta

Ondo. Gaztea nintzela, 18 urte inguru-rekin, arratsaldetan Gaztetzera joaten ginen futbolinean jokatzerara. Orduan barra zabalik izaten zen eta segun eta zein zegoen jende gehiago sartzen zen edo gutxiago. Ondo lan eginez gero aterako dute zerbait.

Javier Alberdi



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Sorluze

Javier Alonso Zelaleta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434



HORTZ KLINIKA

Errebal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRAK ASKO PLAZENTZATARRAI
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZEGATIKI



Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Disenua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17



**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**

1910etik

943 75 13 45



Mendata

Giro euskalduna
Etxean egindako pizzak eta txipirotiak

Agenda

PELOTA

Gaur, 20:15ean Beasainen
Murumendi – Gallastegi

Gaur, 19:30ean Aranen
Larreategi – Kortaberria
Urietako bikotea

Barixakua 25, 11:00etan Aranen
Markez – Lapke
Odriozola – Bergara
Gallastegi – Legazpi
Urki – Murumendi

Zapatua 26, 11:15ean Oretetan
EPL

Tajuolo – Fernandez

FUTBOLA

Bihar, 11:00etan Ezozin
Sora (Pref.) – Anaitasuna

Zapatua 26, 16:00etan Ibarren
Aretxabaleta – Sora (Erreg.)

Bihar, 13:15ean Ezozin
Sora (Jub.) – Iksaberri

Mutilen Kadete taldeak deskantsua
Zapatua 26, 12:45ean Garmendipen
Iksaberri – Sora (Kad. Neskak)

Bihar, 16:00etan Ezozin
Sora (Inf.) – Urki

PALA

Emakumeen Gipuzkoako finala
Bihar, 16:30etik aurrera
Arane kiroldegia
2. mailan Hernani 1 – Intxaurre
1. mailan Hernani – Hernani

MENDIA

Bazkide Eguna San Andresen
Urriak 27, domeka

9:00etan Estaziño kaletik abiatu,
Txurrukatik pasatu eta San Andresen
bukatu. 14:00etan sari banaketa
ekitaldia, ondoren babajana.

Izabara asteburupasa joateko irteera antolatu du mendi taldeak

Azaroaren 16 eta 17an Izaba eta Irati Ainguruak ezagutzeko mendi irteera antolatu du Soralezko mendi taldeak. Fuente de los clérigos-etik irten eta Atxerito (2.362 m) tontorra egingo dute lehenengo egunean. Gaur Izabako aterpetxe batean pasatuko dute eta domekan, Iratiko basoa ezagutzera joango dira, Okabeko aztarna megalitikoak bisitatu. Irteeraren prezioa bazkideentzat 50 euro eta bazkide ez direnentzat 55 eurokoa da (autobusa, afaria, lo egiteko lekua eta armosua barne) eta izen-ematea mendi taldearen egoitzan (Pil-pileanean) egin daiteke astelehen eta eguenetan, 19:30etik 20:30era edo-

ta mendi taldearen kontu korrontean:
2095 5062 97 1069120078 (Kutxa).



Pirineoetara egindako irteera pasa den hamarkadan.

Elgoibartarrak nagusi San Andresko bolatokian

San Andresen ekin diote Euskadiko Hiru Txirilo bolo txapelketako XXIV. edizioa jokatzeari eta guztira 63 bolarik hartuzuten parte, tartean bost soralezetarrek. Angel Ibarluzea elgoibartarra geratu zen aurrenengo, 6 txirilo botata. Hurrengo jaurtialdia Bolibarko Iruzubietan izango da, azaroaren 9an arratsaldeko 17:00etan.



Iturria: Angel Ibarluzea

Soralezko bolariak

IX. Antxintxika krosetan izena emateko epea zabalik

Arrasateko Triatloi Taldeak antolatzen duen Antxintxika krosaren bederatzigarren edizioa azaroaren 2an jokatuko da. Parte hartzaileek Soraluze eta Bergara lotzen dituen 10 kilometroak egin beharko dituzte, Estaziño kaletik hasi eta Bergarako San Martin plazaraino. Hiru modalitatetan parte hartzeko

aukera dago: irtetzen lehenak gurgildun aulkian doazenak izango dira, arratsaldeko 16:30ean. Hauen atzetik patinen gainean doazenak, 16:45ean eta azken lekuan korrikalariak, 17:00etan. Izen-ematea www.kirolprobak.com webgunean egin behar da urriaren 31a baino lehen, 15 euro ordainduta.





Lakuesta Optika

Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59




ESTETIKA SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Gaztañarre Azoka ate joka

Gaztañarre azoka azaroaren 9an izango da eta Gaztañarre Eguna azaroaren 11n. Egitaraua astebete lehenago hasiko da, ondorengo ekitaldiekin: azaroaren 1, 2 eta 3an zizare eta landare bidezko ur arazketa tailerra eskainiko du Azalietxok; azaroaren 5ean errauzgailluaren arriskuez arituko da Suberbiola medikua eta talo ikastaroa azaroaren 7rako zehaztu dute.



Azoka bezperarako erremonte jaialdia antolatu dute eta 14an, sukaldaritza jardunaldiak egingo dira herriko elkarte gastronomikoetan.

Jesusa Gisasola eta Jose Lizarralderi omenaldia

Zapatuko azokarako baserri bizitzari lotuak dauden ekitaldiak antolatu dituzte. Kukumixok txorimaloak nola egin erakutsiko du eta herri kirolak praktikatzeko aukera egongo da gaztetxe eta Galtzagorrien eskutik. Bertsolari eta dantzarien saioaren ondotik, Zabale baserriko Jesusa Gisasola eta Munetako Jose Lizarralde omenduko dituzte. Arratsalderako, jolasak eta Xero Xietteren erromeria antolatu dituzte eta eguna, Fun & Go-k gaztetxean eskainiko duen saioak borobilduko du. Astelehenean gaztañak erreko dituzte gaztetxean eta ondoren, kantu jira antolatu du Pil-pileanek. Animatzen dena lbai-eder elkartean afaltzeko aukera ere izango du.

Berbalagun egiteko izen-ematea zabalik dago



Berbalagun egitasmoaren asmo nagusia euskaraz aritzeko ohiturarik ez duten lagunak ohitura dutenekin batzea da, astean ordubetz kafetegian, parkean, kiroldegian... euskaraz egin eta mintzapraktika lantzeko. Sorluzen, hogeita bost lagunetik gora dihardute berbataldeetan batzen, batzuek goizez eta beste batzuek arratsaldez. Urriaren 31ra arte dago izena emateko aukera, Pil-pileanek (943 75 13 04), AEKn (943 751434) edota udaleko euskaraz zerbitzuan (943 75 30 43).

Urriak 31, eguna

TRIPAFESTA
afari begetarianoak
20:30ean, gaztetxean
Ant: Tripafesta taldea

Azaroak 2, zapatua

INAUGURAZIO JAIALDIA
20:00etan luncha eta jarraian,
Josu Gutar-en (Huajalotes) emanaldia
Ant: Sorluzeko Gazteria

Azaroak 5, martitzena

HITZALDIA
Iñigo Suberbiola medikuaren
eskutik errauskailuaren arriskuak
osasunarentzat.
19:00etan Plaza Berriko karpan
Ant: Sorluzeko Zero Zabor

Azaroaren 11tik 30era

ERAKUSKETA
Krabelin pintura-eskolako ikaskeak,
kiroldegiko erakustaretoan
Ant: Krabelin pintura eskola

Azaroak 14, 21 eta 28

GURASOENTZAKO TAILERRA
"Teknologia berrien erabilera
osasuntsua eta ez arriskutsua"

Azaroak 14 eta 21

TAILERRA
Maitasun erromantikoari buruz
Myriam Herbonen eskutik
18:00etan Zinean
Ant: Emakumeen Topagunea eta udala

Azaroak 22, barixakua

ANTZERKIA
"Hitzak" antzezlan
20:30ean, Zinean
Ant: Kultura Batzordea

Azaroak 25, astelehena

ELKARRETARATZEA
Emakumeen aurkako indarkeria
salatzeko 19:00etan Plaza Barrixan.
Ant: Emakumeen Topagunea eta udala



Zorion agurrak



Nora Mendi Altuna
Irailan 30ian 9 urte!
Zorionak neskaxa
familixian partez.



Euken Mendi Hernaez
Urrian 2xan 5 urte!!
Zorionak eta muxu haundi bat
Nahia eta etxekuen partez!



Ekain Ariznabarreta
Urrian 19an urtebete!
Zure irribarriakin familia
osoari gatibatu gaituzu!
Muxu pila etxeko danon partez!



Einer Ostozala
Urrian 5ian urtiak bete
dittuzulako, Zorionak eta urte
askotarako, lagunen partetik!



Unax Sudupe
Urrian 29xan 8 urte!
Zorionak mutil-haundi eta
muxu potolo bat etxekuen partez!



Ariane Criado Martin
Urrian 22xan 12 urte!!
Zorionak eta muxu haundi bat
etxekuen partez!!



Irea Rascon Criado
Azaruan 6xan 9 urte!!
Zorionak neska haundi!! Muxu
haundi bat familixa partez.



Paki Ramirez Nuñez
Azaruan 21ian 62 urte!!
Ondo pasatu eta muxu bat,
etxekuen partez.

Jaiotakoak eta hildakoak



Maren Aldazabal Castillo
Itsaso Calderon Soria
Izaro Esnaola Tello
Paula Fernandez Pires



Jesus Mari Alberdi Telleria
Julia Odriozola Roman
Eleuterio Azkarateascasua Guridi
Pedro Manuel Etxabe Zubizarreta

Lehiaketa

**Zein
da?**



Saria:
Txurrukan bi
lagunentzako menua

Aurreko aleko erantzuna

Iker Benito, Galtzagorrietako kidea

Irabazlea



Maidier Gonzalez

Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta
hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Iturria: Etzozí Larrañaga

Soraluzeko Ametsa ikastola

1982ko uztailean jasotako argazkia dugu honako hau, Urkiazelain. Soraluzeko Ametsa ikastolako irakasleek ama hizkuntza gaztelera zuten Haur Hezkuntzako ikasleei udako oporretan astialdi euskalduna eskaini nahi izan zie-

ten eta urte hartan, bi aste iraun zuen euskal udalekua gertatu zuten Urkiazelain. Jolas eta kantuen bitartez, ikasle gazteek euskaraz aritzeko eta euskara praktikatzeko aukera izan zuten.

Argazkian, ezkerretik eskumara, goian:

1.- Mariamer Muñoa andereñoa, 2.- Oscar Rascon, 4.- Gaizka Larrañaga, 9.- Arianne Rodriguez, 12.- Andoni Calles, 14.- Vanesa Cruz †, 15- Izate Etxeberria, 16- Iratxe Sebal eta 17- Etzozí Larrañaga.



PEDRO MANUEL ETXABE ZUBIZARRETA

MENDARON HIL ZEN 2013KO URRIAREN 20AN,
77 URTE ZITUELA

*"Ederra izan da Manolo zure kantu lagun izatea
Pozik gogoratuko zaitugu, kantuan
Jalde lanerako beti prest, umil eta baikor
Plazerra izan da Manolo, agur eta ohore"*

Abesbatzako lagunak



herritarrekin
martxan en marcha



 **Gipuzkoa**
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

NOLAKO AUTOBUS ZERBITZUA NAHI DUZU?

Gipuzkoako Foru Aldundiak zurekin batera hobetu nahi du zerbitzua, eta horretarako 56 herritan bilera irekiak antolatu ditu. Internet bidez ere egin dezakezu zure ekarpena:
www.garraioahobetzen.net.

PARTE HARTU ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.




Gipuzkoa
BERRIA



Denok ontzi berean goaz

EROSI HERRIAN



**Bizikale
elkartea**

Gabolatseko Estankoa, Kontsumo Kooperatiba, Criado Frutadenda-urdaitegia, Txoko Kafetegia, Batzoki Taberna, Lilura Estetika, Elizpe Hartz Klinika, Soraluze Zerbitzuak. Mafre, Vidal Frutadenda, Mendizabal Okindegia, Marimar Harategia, Etxabe Harategia, MGS Aseguruak, Iñarra Harategia, Iratxo Gozotegia, Venancio Rico Frutadenda, Belarrak Loradenda, Josu Bitxidenda, Bolintxo Okindegia, Benito Altzariak, Marisa Ilepaindegia, Comercial Vila (Todo a 100), Arkupe Arropa Denda, Mendata Taberna, Luciren Taberna, Kontulan Aholkularitz, Loteria administrazioa, Aitziber Urdaitegia, Javier Alberdi Harategia, Txuritxu Goxotegia, Txurruka Jatetxea, Gaztelupe Taberna, Arrano Taberna, Juan Mari Arraindegia, Gila Taberna, Pub Intxixu, Edurtza, Ufala Irish Pub, Armendia, Bolia